

# **UDALTZAINGOAK DEKOMISATUTAKO GAUZAK KENTZEKO, GARRAIATZEKO, ZAINTEKO ETA GORDETZEKO ZERBITZU BEREZIA EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020. URTEA**

## **I.- FUNTSA ETA IZAERA**

1. artikulua.- Bizkaiko lurralde historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Zergarekin bat etorriz, udal honek tasa bat ezartzen eta exijitzen du, dekomisatutako gauzak kentzeko, garraiatzeko, zaintzeko eta gordetzeko Udaltzaingoak ematen duen zerbitzu bereziarengatik. Tasa hori zerga ordenantza honek arautuko du; beraren arauak aipatutako foru arauan ezarritakoaren arabera dira.

## **II.- ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.- Udaltzaingoak dekomisatutako gauzak kentzeko, garraiatzeko, zaintzeko eta gordetzeko ematen duen zerbitzu berezia jasotzea da tasa honen zerga egitatea.

## **III.- SUBJEKTU PASIBOA**

3.1. artikulua.- Ondoko hauek dira subjektu pasiboak, zergadun kontzeptupean: Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, ordenantza honetan araututako udal jarduera edo zerbitzuak eskatzen badituzte edo haien eragina jasotzen badute.

2.- Administrazio jarduera edo zerbitzua subjektu pasiboari dagokiola joko da baldin eta berak sortu badu, zuzenean nahiz zeharka, bere ekintzek edo bere omisioek udala derrigortu dutelako ofizioz jarduerak egitera edo zerbitzuak ematera.

## **IV.- ZERGA EGITATEA**

Zerbitzua gauzatzeko unitateetako bakoitza da zerga unitatea, tarifaren terminoetan.

## **V.- ZERGA KUOTA**

4. artikulua.- Zerga kuota ondoko tarifa hauek aplikatzearen ondorio izango da:

1.- Dekomisatutako gauzak kentzea eta garraiatzea: 26,00 euro

2.- Dekomisatutako objektuak zaintzea eta gordetzea:

Dekomisatutako gauza	Egun bakoitzeko, 3. egunera arte	Egun bakoitzeko, 4. egunetik aurrera
3 m <sup>3</sup> gehienez	1,60 €	4,20 €
3 m <sup>3</sup> edo gehiago	3,60 €	11,40 €

## **VI.- ORDAINARAZPENAK ETA HOBARIAK**

5. artikulua.- Aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira salbuespenak edota bestelako zerga onurak.

## **VII.- ORDAINARAZPENA**

6. artikulua.- Dekomisatutako gauzak itzultzen diren une berean likidatu eta ordaindu behar da tasa.

## **VII.- KUDEAKETA**

7. artikulua.- Ordenantza honetan araututako tasa honen likidazio, bilketa eta ikuskapenerako, zerga urraketan kalifikaziorako eta kasu bakoitzari dagozkion zehapenak zehazteko, Zerga Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskapeneko Zerga Arau Orokorrean ezarritakoa aplikatu beharko da.

## **VIII.-AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, idazkuntza honetan, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, onetsi zuen Udalbatzak. Bizkaiko lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko da. Harik eta aldarazpena edo indargabetzea erabaki arte indarrean jarraituko du.